

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ALBERTO OFICIALDEGUI. NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO OROKORRA

UNTZUEN, TRENAREN ZAIN

Iruñea eta Zaragoza arteko tren linea izan zen Nafarroan martxan jarri zen lehena. Lehen zatia, Iruñetik Caparrosorainokoa, 1860ko irailean inauguratu zen, eta 1861eko maiatzean Tuterarainoko tartea inauguratu zen. Beste tarte bat, Altsasu eta Olatzagutitik igarotzen zena eta Parisetik Madrilerako linearen zati zena, 1864an inauguratu zen. Tarte hori osatu baino lehen, Hans Christian Andersen idazle eta poeta daniarrak 1862an Olatzagutitik igaro zela kontatu zuen. Han amaitzen zen trenbidea eta han «...andre nagusientzat lokomotorra gauza berria eta deabruzkoa zen: guztiek gurutzearen seinalea egiten zuten bagoira igotzean, eta aitaren egiten zuten berriro eserlekura iritsi eta trenaren txilibitua entzuten zutenean». Artikulua ilustratzen duen irudia Alberto Oficialdegui Untzueko parrokoak XX. mendearen hasieran egina da. Bidaiari talde bat ageri da Untzueko Carrascal geltokian, Iruñetik Zaragozarako trena noiz iritsiko zain, hainbat herritan geldialdiak egingo zituen, hala nola Tafallan, Tuteran, Caparrosen eta Castejonon.